

SARRERA

EHUN ETA HOGEI MILIOI HAUR EKAITZAREN ERDIAN

Lanaren nazioarteko banaketa honetan datza: herrialde batzuk irabazten espezializatzen dira eta beste batzuk galtzen. Gure munduko eskualdea, Latinoamerika deitzen duguna gaur egun, goiztiarra izan zen: galtzen espezializatu zen aspaldiko garaietatik, Errenazimentuko europarrek itsasoan zehar oldartu eta hortzak eztarrian sartu zizkietenetik. Mendeak iragan ziren eta Latinoamerikak bere funtzioak hobetu zituen. Dagoeneko hau ez da gauza miresgarrien erresuma, non errealitateak alegia garaitzen zuen eta irudimena umiliatuta geratzen zen konkistaren garaikurren, urrezko hobien eta zilarrezko mendien aurrean. Baina eskualdeak neskame gisa jarraitzen du lanean. Existitzen jarraitzen du besteen beharren zerbitzura, petrolio eta burdinaren iturburu eta erreserba gisa, kobre eta haragiarena, fruta eta kafearena, lehengai eta elikagaiena, herrialde aberatsetara bidaltzeko, hauek kontsumoarekin irabaz dezaten Latinoamerikak ekoizten irabazten duena baino askoz gehiago. Askoz handiagoak dira erosleek kobratutako zergak ekoizleek jasotako prezioak baino; azken finean, Covey T. Oliver-ek, Aurrerabiderako Aliantzako koordinatzaileak, 1968ko uztailean adierazi zuen bezala, «gaur egun bidezko prezioez mintzatzea Erdi Aroko kontzeptua da. Merkaturatze librearen aroan gaude bete-betean...».

Negozioei askatasun handiagoa ematen zaien heinean, espetxe gehiago eraiki behar dira negozioak pairatzen dituztenentzat. Inkisidore eta borroeroen gure sistemek ez dute bakarrik lan egiten kanpoko merkatu menderatzailearentzat; badira emari handiko irabazi-iturriak ere, atzerriko maileguetatik eta menderatutako barne-merkatuetan egindako inbertsioetatik isurtzen direnak. «Latinoamerikak atzerriko kapitalei egindako kontzesioez mintzatzun entzun da, baina ez Estatu Batuek beste herrialdeetako kapitalari egindako kontzesioez... Guk ez dugulako kontzesiorik ematen», ohartarazi zuen, 1913 inguruan, Woodrow Wilson Estatu Batuetako presidentea. Ziur zen: «Herrialde bat —zioen— bertan inbertitu den kapitalaren mende dago». Eta arrazoia zuen. Bidean geure burua *amerikar* izendatzeko eskubidea ere galdu genuen, nahiz eta haitiarrak zein kubatarrak historian ageri *Mayflower*eko erromesak Plymouth kostaldean kokatu baino mende bat lehenago. Orain

Amerika, mundu osorako, Estatu Batuak baino ez da: gu bizi garen tokia, azpi Amerika bat da, asko jota; bigarren mailako Amerika bat, identitate lanbrotsua duena.

Latinoamerika da, zain urratuen eskualdea. Aurkikuntzatik gaur egun arte hemen dena Europako kapital bilakatu da beti, edo geroago Ipar Amerikakoa, eta, ondorioz, urruneko botereguneetan metatu da eta metatzen da. Dena: lurra, bere fruituak eta mineraletan aberats diren lur azpiak, jendea eta bere lan egiteko eta kontsumitzeko ahalmena, baliabide naturalak eta giza baliabideak. Toki guztietako ekoizpen-modua eta klase-egitura kanpotik ezarri dira etengabe, kapitalismoaren engranaje unibertselean txertatuta. Toki bakoitzari funtzio bat esleitu zaio, zegokion atzerriko metropoliaren garapenari mesede egiteko beti; eta horrela mendekotasun jarraituen katea amaigabea izan da. Kateak bi katebegi baino gehiago ditu gainera, baina bi hauek barnean ditu, zalantzarik gabe, Latinoamerikaren barruan, herrialde txikien zapalkuntza beren bizilagun handiagoen eskutik, eta, herrialde bakoitzaren mugen barruan, berriz, hiri handiek eta portuek egiten duten zapalkuntza beren jangaien eta lanekuaren iturburuen gainean. (Duela lau mende sortuak ziren Latinoamerikako hogeitahiru jendetsuenetakoa hamasei.)

Historia lehia gisa ulertzen dutenentzat, Latinoamerikaren atzerapena eta miseria bere porrotaren emaitza baino ez dira. Galdu dugu; beste batzuek irabazi dute. Baina bistan da irabazleek irabazi dutela guk galdu dugulako: Latinoamerikaren azpigarapenaren historia da, esan bezala, munduko kapitalismoaren garapenaren historiaren parte integral bat. *Gure porrota beti egon da inplizituki besteen garaipenean; gure aberastasunak beti sortu du gure pobrezia besteen oparotasuna elikatzeke: inperioak eta esklaboek bertako ugazabak. Alkimia kolonial eta neokolonialean, urrea txatarra bilakatzen da, eta elikagaiak pozoiz. Potosí, Zacatecas eta Ouro Preto goitik behera erori ziren metal preziatuen tontor distiratsutik zulo huts sakonera; eta hondamendia izan zuten helmuga nitroaren panpak Txilen eta kautxuaren oihanak Amazonian. Ipar-ekialdeko azukrea Brasilen, «quebracho» basoak Argentinan edo zenbait herritako petrolioak Maracaibo lakuan arrazoi mingarriak izan dira naturak ematen duen eta inperioak lapurtzen duen zoriaren hilkortasunean sinesteko. Botere inperialistaren guneak ureztatzen dituen euriak ito egiten ditu sistemaren aldiru itzelak. Era berean, eta modu simetrikoan, gure klase zantpatzaileen —zantpatzaileak barrurantz, zantpatzaileak kanpotik— ongizatea da zama-abereen bizimodura kondentatutako gure jendetzaren madarikazioa.*

Arrakala zabaldu egiten da. XIX. mendearen erdialdean mundu osoko herrialde aberatsen bizi-mailak ehuneko berrogeita hamarrean gainditzen zuen herrialde pobreen maila. Garapenak desberdintasuna garatzen du: 1969ko apirilean Richard Nixonek, Amerikako Estatu Erakundearen (AEE) aurreko hitzaldian, iragarri zuen AEBko per capita errenta Latinoamerikakoa baino hamabost aldiz handiagoa izango dela hogeigarren mendearen bukaerarako. Sistema inperial osoaren indarra berau osatzen duten zatien desberdintasun nahitaezkoan oinarritzen da, eta desberdintasun horrek gero eta magnitude dramatikoagoak hartzen ditu. Herrialde zapaltzaileak gero eta aberatsago bihurtzen dira termino absolutuetan, baina askoz ere gehiago termino erlatiboetan, desberdintasun gorakorren dinamika dela-eta. Kapitalismo *zentral*aren apeta izan daiteke oparotasunaren mitoa sortzea eta horretan sinestea, baina mitoak ez dira jaten, eta hori ondo dakite kapitalismo *periferiko* zabala osatzen duten herrialde pobreek. Ipar Amerikako herritar baten batez besteko diru-sarrera Latinoamerikako batena baino zazpi aldiz handiagoa da, eta hamar aldiz azkarrago hazten da. Eta batez bestekoa iruzurra da, Rio Bravotik hegoaldean eskualdeko txiro askoren eta aberats gutxien artean irekitzen diren amildegik ikergaitzengatik. Horrela, gailurreko sei milioi latinoamerikarrek biltzen dute, Nazio Batuen arabera, piramidearen oinarrian dauden ehun eta berrogei milioi pertsonaren diru-sarrera beste. Badira hirurogei milioi nekazari zeinen ondasuna hogeita bost dolar-zentabara iristen den eguneko; beste muturrean zorigaitzaren proxenetek bost milioi dolar metatu egiten dute Suitzako edo Estatu Batuetako euren kontu pribatuetan, handikerietan eta luxu antzuan xahututa —iraina eta erronka— baita inbertsio ez-produktiboetan ere, guztira inbertsio osoaren erdiraino iristen direnak. Kapital horiek Latinoamerikak erabili ahalko lituzke ekoizpen- eta lan-iturriak berritzeko, zabaltzeko eta sortzeko. Botere inperialistaren konstelazioan erantsita betidanik, gure klase menderatzaileek ez dute interes apurrik ere aztertzeko ea abertzaletasuna errentagarriagoa den traizioa baino, edo ea eskean ibiltzea den nazioarteko politikaren forma bakarra. Subiranotasuna hipotekatu egiten da, «beste biderik ez dagoelako»; oligarkia zurigarrietan dabil, klase sozial baten ezintasuna eta nazio bakoitzaren patu ustezko hutsa nahita nahastuz.

Josué de Castrok adierazi du: «Nik, nazioarteko bake-saria jaso duen honek, uste dut ez dagoela, tamalez, indarkeria ez den beste irtenbiderik Latinoamerikarako». Ehun eta hogeit mila haur aztoratuta daude ekaitzaren erdian. Latinoamerikako biztanleria hazten ari da besteak ez bezala; mende erdian hirukoiztetik harago joan da. Minutuero haur bat hiltzen da gaixotasunak edo goseak jota, baina 2000 urtean seihun eta berrogeita

hamar milioi latinoamerikar egongo dira, eta erdiek hamabost urte baino gutxiago izango dute: *denbora-bonba bat*. Berrehun eta laurogei milioi latinoamerikarren artean badaude, 1970 amaieran, berrogeita hamar milioi langabetu edo azpienplegatu eta ia ehun milioi analfabeto; latinoamerikarren erdiak bizi dira bizileku osasungaitzetan pilatuta. Latinoamerikako merkatu handienak —Argentina, Brasil eta Mexiko— batuta ez dira heltzen Frantziaren edo Mendebaldeko Alemaniaren kontsumo-ahalmenera, nahiz eta gure hiru *handien* biztanleriak bilduta Europako edozein herrialderena erruz gainditu. Latinoamerikak gaur egun sortzen du, duen biztanleriarekiko, Bigarren Mundu Gerran baino elikagai gutxiago, eta bere per capita esportazioak, prezio konstantean, jaitsi egin dira hiru aldiz 1929ko krisi-bezperatik. Sistema oso arrazionala da atzerriko jabeen ikuspuntutik zein gure burgesia komisionistarenetik, zeinak arima deabruari saldu dion Fausto lotsatuko zukeen salneurrian. Baina sistema gainontzeko guztientzat hain da irrazionala, ezen, zenbat eta gehiago garatu, orduan eta handiagoak diren bere desorekak eta tentsioak, bere kontraesan sutsuak. Industrializazioa bera ere, menpeko eta berantiarra, latifundioarekin eta desberdintasunaren egiturekin batera elkarrekin eroso bizi dena, langabeziaren bultzatzailea izan zen sendatzailea izan beharrean. Pobrezia zabaltzen da eta aberastasuna bildu eskualde honetan, non beso jausien egundoko legioa dagoen, etengabe biderkatzen dena. Fabrika berriak ezartzen dira garapen-gune pribilegiatuetan —Sao Paulo, Buenos Aires, Mexiko Hiria— baina gero eta laneku gutxiago behar da.

Sistemak ez du aurreikusi eragozpen txiki hau: soberan dagoena jendea da. Eta jendea ugaldtu egiten da. Amodioa egiten da sutsuki eta ardura gabe. Gero eta jende gehiago geratzen da bide-bazterrean, lan gabe landa-eremuan, non alfer-lur erraldoiz osatutako latifundioak diren jaun eta jabe, eta lan gabe hirian, non makinak diren jaun eta jabe: sistemak jendea oka egiten du. Iparramerikar misioek emakumeak antzutzen dituzte, masiboki, eta pilulak, diafragmak, espiralak, preserbatiboak eta markatutako almanakak ereiten dituzte, baina haurren uzta jasotzen dute; Latinoamerikako haurrak jaiotzen dira behin eta berriz, temati, lur eder hauetan eguzkipeko toki bat eskuratzeko beren eskubide naturala aldarrikatuz, guztiei eman ahalko lekiekeena baina ia guztiei ukatzen zaiena.

1968ko azaroaren hasieran Richard Nixonek ozenki baieztatu zuen Aurrerabiderako Aliantzak zazpi urte beteta zituela eta, hala ere, desnutrizioak eta janari-eskasiak okerrera egiten zuela Latinoamerikan. Hilabete batzuk lehenago, apirilean, George W. Ballek idatzi zuen *Lifen*:

«Hurrengo hamarkadetan behintzat, nazio behartsuenen atsekabeak ez du ekarriko mundua suntsitzeko mehatxurik. Lotsagarri izanagatik, munduak irau du, belaunaldietan zehar, bi heren pobre eta heren bat aberats. Bidegabe izanagatik ere, herrialde pobreen boterea mugatua da». Merkataritzza eta Garapenari buruzko Lehen Konferentzian, Genevan, Estatu Batuetako ordezkartzaren burua zen Ball, eta nazioarteko merkataritzan azpigaratutako herrialdeen desabantailak arintzeko konferentzian onartutako hamabi printzipio orokorretako bederatzitan aurka bozkatu zuen.

Latinoamerikan pobreziak eragindako hilketak sekretuak dira oraindik; urtero, modu isilean, inolako zalapartarik gabe, Hiroshimako hiru bomba lehertzen dira, hortzak estututa sufritzeko ohitura duten herri hauen gainean. Indarkeria sistematiko hau, ez itxurazkoa benetakoa baizik, gero eta handiagoa da: krimenak ez dira islatzen prentsa horian, FAOren estatistiketan baizik. Ballek dio inpunitatea posiblea dela oraindik, pobreek ezin dutelako eragin mundu gerra bat, baina Inperioa kezkatuta dago: ogiak biderkatzeko ezgai, mahaikideak ezabatzen saiatzen da. «Borrokatu pobrezia, hil behartsu bat!» umore beltzaren maisu batek zirrimarratu zuen La Paz hiriko horma batean. Malthus-en oinordeko horien proposamena ez al da, bada, hurrengo behartsuak hiltzea jaino baino lehen? Munduko Bankuaren presidente Robert McNamarak baieztatzen du biztanleriaren eztanda dela Latinoamerikako aurrerapenerako oztopo handiena, eta iragartzen du Munduko Bankuak lehenasuna emango diela, bere maileguetan, jaiotze-kontrolerako planak ezartzen dituzten herrialdeei. McNamarak egiaztatzen du, errukituta, pobreen garunek ehuneko hogeita bost gutxiago pentsatzen dutela, eta Munduko Bankuaren teknokratek (dagoeneko jaiotze) konputagailuak astindu eta aho-korapilo korapilatsuak sortzen dituzte ez-jaiotzearen abantailei buruz: «Per capita errenta 150 eta 200 dolar duen eta garabidean dagoen herrialde bat ugalkortasun-tasa ehuneko 50 jaistera iristen baldin bada 25 urtean, orduan 30 urte beranduago bere per capita errenta ehuneko 40 handiagoa izango da bestela edukiko lukeena baino, eta bi aldiz handiagoa 60 urte geroago», erakundearen dokumentuetako batek dioenez. Lyndon Johnsonen esaldia ospetsu egin da: «Bost dolar, biztanleriaren hazkundearen aurka inbertituta, eraginkorragoak dira hazkunde ekonomikoan inbertitutako ehun dolar baino». Dwight Eisenhower-ek iragarri zuenez, lurreko biztanleek erritmo berean ugaltzen jarraitzen badute, iraultzaren arriskua handitzeaz gain «herrialde guztien bizi-mailaren degradazioa, *gurea barne*, gertatuko da».

Estatu Batuek ez dute jasaten, barne-mugetan, jaiotze-leherketaren arazoa, baina arduratzen dira, beste inor ez bezala, familia-plangintzak zabaltzen

eta ezartzen munduko lau puntu kardinaletan. Ez bakarrik gobernuak; Rockefellerrek eta Ford fundazioak ere amesgaiztoak dituzte: milioika haur aitzina, otiak bezala, Hirugarren Munduko ostertzetatik. Platonek eta Aristotelesek jorratu zuten gaia Malthusek eta McNamarak baino lehen; hala ere, gure garaian, erasoaldi unibertsal horrek ondo definitutako funtzioa du: herrialdeen arteko eta klase sozialen arteko errenta-banaketan dagoen desberdintasun handia justifikatu nahi du, pobreei sinetsaraztea pobrezia saihesten ez diren haurren emaitza dela, eta harresi bat jartzea mugitzen eta matxinatzen diren masen haserre gorakorren aurrean. Umetoki barneko gailuak lehian daude bonbekin eta metrailarekin Asiako hegoekialdean, Vietnamgo biztanleriaren hazkundera gelditzeko ahaleginean. *Latinoamerikan higienikoagoa eta eraginkorragoa da gerrillariak umetokian hiltzea mendizerretan edo kaleetan baino.* Ipar Amerikako hainbat misiok milaka emakume antzutu dute Amazonian, planetaren eremu bizigarri hutsena izan arren. Latinoamerikako herrialde gehienetan jendea ez dago soberan: gutxiegi dira. Brasilen, kilometro koadroko Belgikan baino 38 aldiz biztanle gutxiago dago; Paraguain, Ingalaterran baino 49 aldiz gutxiago; Perun, Japonian baino 32 aldiz gutxiago. Haitin eta El Salvadorren, Latinoamerikako giza inurritegietan, populazio-dentsitate baxuagoa dute Italian baino. Argudiatutako aitzakiek inteligentzia iraintzen dute; benetako asmoek sumindura piztu. Azken finean, Argentina, Bolivia, Brasil, Txile, Ekuador, Paraguai eta Venezuelako lurraldeen erdian gutxienez, ez da inor bizi. Latinoamerikan inon ez dago biztanleriaren hazkundera txikiagoa zaharren herrialde dioten Uruguain baino, eta, hala ere, azken urteetan ez dago beste herrialderik hain krisi larririk jasan duenik, zeinean ematen duen infernuko azken zirkulura arrastaka eramana izan dela. Uruguai hutsik dago, eta bertako belardi emankorrak gai lirateke elikatzeke egun bertan hainbeste eskasia pairatzen duen biztanleria baino infinituki handiago bat.

Mende bat baino gehiago atzera, Guatemalako kantziler batek honelako profetia egin zuen: «Bitxia litzateke Estatu Batuen bihotzean bertan, gaitza datorkigun tokian, erremedioa ere sortzea». Aurrerabiderako Aliantza hilda eta lurperatuta, Inperioaren oraingo proposamena, izuz eginda eskuzabaltasunez baino gehiago, honako hau da: Latinoamerikaren arazoak konpontzea latinoamerikarrak alde aurretik ezabatuta. Washingtonen dagoeneko badute motiborik susmatzeko herrialde pobreek ez dutela *nahiago* pobre izatea. Baina ezin da helburua irrikatu bitartekoak irrikatu gabe: Latinoamerikaren askapena ukatzen dutenek aldi berean ukatzen dute gure berpizte posible bakarra, eta bide batez absolutzioa ematen diete indarrean dauden egiturei. Gazteak biderkatu egiten dira, altxatu egiten dira, entzuteko

prest: zer eskaintzen die sistemaren ahotsak? Sistema hizkuntza surrealistaz mintzo da: lur huts hauetan erditzeak saihestea proposatzen du; kapital falta dagoela dio kapitala alferrik xahutzen den herrialdeetan; *laguntza* deitzen dio maileguen ortopedia deformatzaileari eta atzerriko inbertsioek eragiten duten aberastasunen drainatzeari; lur-jabeei deitzen die lur-erreforma egiteko, eta oligarkiari justizia soziala praktikan jartzeko. Klase-borrokarik ez dago —dio dekretuz— ezpada kanpotar agenteek piztua, baina, aldiz, klase sozialak badaude; batzuen besteen gaineko opresioari Mendebaldeko bizi-estiloa esaten zaio. *Marineen* espedizio kriminalen xedea ordena eta bake soziala berreskuratzea da, eta Washington menpeko diktadorek kartzelak hartzen dituzte oinarri zuzenbidezko estaturako, eta lan-askatasuna babesteko grebak debekatu eta sindikatuak txikitzen dituzte.

Dena debekatuta dago, besoak gurutzatzea izan ezik? Pobrezia ez dago izarretan idatzita; azpigarapena ez da Jainkoaren plan ilun baten fruitua. Iraultzaren urteak dira hauek, erredentzioaren garaia. Klase menderatzaileek beretzen jarri dituzte euren bizarrak, etaaldi berean infernua iragarri dute guztiontzat. Neurri batean, eskuinak arrazoia du bere burua bakearekin eta ordenarekin identifikatzen duenean: gehiengoan eguneroko umiliazioaren ordena, ordena azken finean: lasaigarria da bidegabekeria bidegabea izan dadin, eta gosea gosebera. Etorkizuna sorpresa-kutxa bihurtzen baldin bada, kontserbadoreak oihu egiten du, arrazoi osoz: «traizioa egin didate». Eta inpotenziaren ideologoek, beren burua nagusiaren begiekin ikusten duten esklabo horiek, ez dute geroratzen beren deia darren aldarrikapena. *Maineko* brontzezko arranoa, iraultza kubatarraren garaipenaren egunean eraitsita, hor datza abandonatuta, hegoak apurtuta, Habanako alde zaharrean bebarru baten azpian. Kubakotik aurrera, beste herrialde batzuek ere hasia dute, bide desberdinetatik eta baliabide desberdinekin, aldaketaren esperientzia: egungo gauzen ordena betikotzea krimena betikotzea da.

Latinoamerikaren historia oinazetuan zehar itotako eta traizionatutako iraultza guztien mamuak agertzen dira esperientzia berrietan, hala nola gaur egungo garaiak sumatu eta sorrarazi zituzten iraganeko kontraesanak. *Atzera bihurtutako begirada duen profeta bat da historia: izan zenagatik, eta izan zenaren aurka, izango dena iragartzen du.* Beraz, liburu honetan, non arpilatzearen historia eskaini nahi den, etaaldi berean kontatu egungo bipiltzearen mekanismoek nola funtzionatzen duten, karabelak agertzen dira, eta, hortik hurbil, jet-etako teknokratak, Hernán Cortés eta marineak, erresumaren korrejidoreak eta Nazioarteko Diru Funtzaren misioak, esklaboen trafikoaren dibidenduak eta General Motors-en irabaziak. Baita heroi garaituak eta gure garaiko iraultzak, doilorkeria eta hildako zein berpiztutako

itxaropenak ere: sakrifizio emankorrak. Alexander von Humboldtek Bogotako mendikateetako antzinako biztanle indigenen ohiturak ikertu zituen, horrela jakin zuen indiarrek *quihica* deitzen zieten zeremonia erritualen biktimei. *Quihica* hitzak *atea* esan nahi zuen: hautatu bakoitzaren heriotzak ehun eta laurogeita bost ilargiko ziklo berri bat irekitzen zuen.